

Nola hel zaitezke ura errespetatzen duen pertsona bat izatera?

1. Hortzak garbitzen ari zarenean, iturria irekita uzten ez baduzu, 4 litro ur baino gehiago aurrez ditzakezu. Hobe da edalontzi bat betetzea ahoa garbitu behar duzunean. Horrez gain, ez ahastu txorrota ixtea ontziak garbitzen ari zaren bitartean, erabilitako ur-kopurua 2 litrotik 18ra alda daiteke eta.

2. Bainua hartuz gero, 150-200 litro ur erabil daitezke. Bainua barik dutxa hartuz gero, uraren %50 ere aurrez dezakezu. beraz, dutxatu azkar.

3. Tanta-jariorik txikienak ere eguneko 75 litro gastatzea eragin dezake, eta egoera txorrota batek urteko 35.000 litro alperrik galaraz ditzake. Aldian-aldian egiaztatu zure etxeko iturri eta tutuetan ez dagoela tanta-jariorik edo galerarik.

4. Ez erabili komun-ontzia paperontzi bat balitz bezala. Hala, beharrezkoa ez den kutsadura sortzea ekidin dezakezu, baita ur-kopuru handia alperrik galtzea ere.

5. Ura aurrezteko dispositiboak -zisternetan sakagailu bikoitzeko mekanismoak eta dutxa, konketa eta iturrietan erregulatzeko laparatuak kasu- erabilia, uraren ehuneko 60 aurrez daiteke

6. Ez bota inoiz sukaldean erabilitako olio harraskatik, litro bat oliok lurpeko, urak lotura handiko sistema bat osatzen duenez ibaietako eta itsasoetako 2 milioi litro ur ere kutsa ditzake eta. Kutsadura zehaztugabe hau munduko kutsaduraren sorburu nagusietako bat da.

7. Kudeaketa txarra askotan izaten da da ur-arazoaren arrazoa. Ez ureztatu kaleak eta espaloiak, bertan ez baita belarrik haziko. Soropila edo lorategia eguzkiak jotzen ez duen orduetan ureztatu, eta erabili ihinztigailuak alperrik ez gastatzeko.

8. Nekazaritzan erabilitako uraren ehuneko hirurogei ihesetan eta lurruntzean galtzen da. Ureztatzean eragingarritasunaren % 10 hobetuz gero, erabiltzeko ura bikoiztu daiteke.

9. Kilo bat paper egiteko, zuhaitzez gain, 300 litro ur behar dira. Papergintza ur gehien kontsumitzen duten sektoretako sbat da; beraz, hartu bi aldeetatik inprimatzeko ohitura.

10. Ura errespetatzeko mezu hau zabaldu eta lagundu zure lagun, erkidego eta agintariei egun ditugun ur-arazo larri hauetan kontzientziatzen.